

PANDEMIARI BURUZKO HERRITARREN PERTZEPZIOAK (2021eko otsaila) Prensa oharra

SARRERA

Ikerketa honen gaia Euskadiko herritarrek Covid-19aren pandemiari buruz dituzten pertzepzio eta jarrerak izan da. Landa lana 2021eko urtarrilaren 27tik 30era egin zen.

KEZKA

Kezkak handia izaten jarraitzen du

Euskal herritarrek kezka handia agertu dute koronabirusaren hedapenagatik; %89 oso edo nahikoa kezkatuta daude (%45 oso kezkatuta eta %44 nahikoa).

Gutxiago dira eurak gaixotzeagatik oso edo nahikoa kezkatuta daudenak (%78) bere inguru hurbileko norbait gaixotzeak kezkatzen dituenak baino (%93).

Ondorio ekonomikoei dagokionez, %43k diote oso kezkatuta daudela krisiak bere familiaren egoera ekonomikoan izan ditzakeen ondorioengatik eta beste %35 nahiko kezkatuta. Handiagoa da kezka krisiak Euskadiko ekonomian izan ditzakeen ondorioengatik: %58 oso kezkatuta daude eta %37 nahikoa.

Kezka gutxiago sortarazten dute pandemiak seme-alaben eskolatzean izan ditzakeen ondorioek (%44 eta %33 asko edo nahikoa, hurrenez hurren), buruko osasunean edo osasun emozionalean izan ditzakeen eraginek (%36 eta %38) eta etxeko familia-kontziliatorako ekar ditzakeen (%27 eta %28).

Inkestatuei galdetu zaie zerk kezkatzen dituen gehiago, osasunaren gaineko ondorioek ala ekonomia eta enpleguaren gainekoek; %60k esan dute osasunaren gaineko ondorioek kezkatzen dituztela gehiago eta %17k ekonomia eta enpleguaren gainekoek. %23k espontaneoki diote biek berdin kezkatzen dituztela, nahiz eta erantzun aukera hori ez zitzaizen eman.

Herritarren %14k uste dute pandemiaren okerrera pasa dela, %34k okerrera pasatzen ari garela eta %45ek okerra iristear dagoela.

EAEko herritarrek batez beste 6,1 punturekin baloratzen dute euren egoera emozionala, 0tik 10erako eskalan, 0ak esan nahi duelarik "guztiz lur jota" daudela eta 10ak "guztiz animatuta" daudela.

OSASUN SISTEMAREN ERANTZUNA

Euskal osasun sistemaren erantzunaren balorazio ona

Herritarren %74k 7 eta 10 puntu arteko balorazioa eman diote Osakidetza Covid-19a duten gaixoei ematen ari zaien arretari; batez beste 7,6 puntu eman diote.

Herritarren %46k uste dute euskal osasun sistema pandemiari ematen ari den erantzuna beste autonomia erkidego batzuetakoa baino hobea dela, %41ek berdina dela, eta bakarrik %2k okerragoa dela.

Osasun agintarien informazio eta gomendioen argitasunari dagokionez, herritarren %40k 7 eta 10 puntu artean eman diote.

ERAKUNDEEN JARDUERA KRISIAREN KUDEAKETAN

Lautik hiruk oniritzia eman diote Eusko Jaurlaritzaren kudeaketari

EAEko herritarren %75ek oniritzia eman diote Eusko Jaurlaritza krisi honetan izaten ari den jarduerari, batez beste 5,7 puntuko balorazioarekin 0tik 10erako eskalan.

Espainiako Gobernuaren jarduerari 4,4 puntu eman diote eta Europar Batasunarenari 4,9 puntu.

PANDEMIAREN AURKAKO NEURRIAK

Gehiengoak prebentzio neurriak betetzen dituela uste da

Herritarren %61ek uste dute gehiengo gizalegez eta elkertasunez jokatzeko ari dela pandemiaren kontrako neurrien aurrean, aldiz beste %34k uste dute gehiengo gizalege eta elkertasun gutxiarekin jokatzeko ari dela.

Herritarren %40ren ustez, pandemiaren egungo bilakaeraren aurrean, neurri murriztaileagoak hartu beharko lirateke, %24ren ustez egungo neurriak egokiak dira eta %28ren ustez orain arte hartutako neurrien aldean ezberdinak hartu beharko lirateke. %2k bakarrik uste dute neurriak ez liratekeela orain bezain murriztaileak izan behar.

Iritzi zatiketa handia dago berriro etxeko konfinamendua ezartzeko aukerari buruz: %45ek diote ezarri beharko litzatekeela eta %52ek ezetz.

Udalerrien arteko mugikortasunari dagokionez, %55en ustez indarrean dagoen neurria da egokiena, hau da, udalerrien arteko mugikortasuna debekatzeko duena. %24k uste dute bakarrik egoera okerranean dauden udalerrietan debekatu beharko liratekeela sarrera-irteerak eta %16ren ustez ez lirateke udalerrien arteko mugimenduak debekatu behar.

Gehienez 4 pertsonako taldeetan elkartzeko mugari dagokionez, %61en ustez neurria egokia da, %30en iritziz debekatu egin beharko lirateke elkarrekin bizi ez direnen arteko elkarretaratzeak eta %6ren ustez, aldiz, ez lirateke taldean elkartzeko mugarik jarri behar.

Ostalaritza establezimenduen itxierari buruz, %46 ados daude indarrean dagoen neurriarekin, hau da, egoera okerrean dauden udalerritan ostalaritza itxtearekin. %27k uste dute ez litzatekela itxi behar inongo udalerritan eta %23k udalerrri guztietan itxi beharko litzatekela.

Azkenik, taldean kirola egiteko mugei dagokienez, iritzi zabalduena (%42) indarrean dagoen neurriaren aldekoa da, hau da, egoera okerrean dauden udalerritan taldean kirola egitea debekatzen duena. %35en ustez udalerrri guztietan debekatu behar litzateke eta %19ren ustez ez litzateke inon debekatu behar.

NORBERAREN JOKABIDEA ETA KUTSATZE-ARRISKUA

Gehiago uste du kutsatzeko arrisku gutxi duela

Koronabirusaz kutsatzeko arrisku handiena duten jardueratzat hartzen dira etxebizitza batean elkartzea norberarekin bizi ez direnekin (%89k uste dute arrisku handia edo dezentekoa duela), garraio publikoan ibiltzea (%85) eta taberna edo jatetxe batean barruan jan edo edatea (%80). Arrisku apur bat txikiagotzat hartzen da beste pertsona batzuekin batera leku itxi batean lan egitea (%77), beste pertsona batzuekin leku itxi batean klasera joatea (%73), eta, azkenik, denda edo merkatal zentroetara joatea (%73).

Hala ere, herritarren %71k diote, euren jarduerak, harremanak eta hartzen dituzten prebentzio neurriak kontuan hartuta, aukera gutxi dutela edo batere aukerarik ez dutela koronabirusaz kutsatzeko. %7k uste dute aukera asko dituztela eta %18k aukera dezente.

Inkestakuei galdetuta Covid-19ak beraien osasunean zenbateko larritasuna izango lukela uste duten, %11k esan dute oso larria litzatekela uste dutela, %26k nahikoa larria, %41ek ez oso larria eta %6k ez batere larria. Gaixotasunaren larritasunari buruzko pertzepzioa adinarekin lotuta dago; adinean aurrera egin ahala gero eta gehiago dira nahikoa edo oso larria izango litzatekela uste dutenak. 18 eta 29 urte bitarteko gazteen artean %51k uste dute ez litzatekela oso larria eta %21ek ez litzatekela batere larria.

ONDORIOAK NORBERE EKONOMIAN

Egoera ekonomikoa

Herritarren %36k diote bere egoera ekonomikoa okerragotu egin dela pandemiarekin, %14rena asko eta %22rena pixka bat.

%24k aurreikusten dute urtebete barru beren egoera okerragoa izango dela, %52k uste dute ez dela aldatuko eta %19k hobe izango dela.

TXERTOIA

Gehiago zabalak txertoa jarriko du

Jendearen %61en ustez txertoen eraginkortasunari eta segurtasunari buruz ematen ari diren informazioa oso edo nahikoa fidagarria da, %29k ez dela oso fidagarria eta %7k ez dela batere fidagarria.

Herritarren %75ek diote txertoa jartzeko aukera ematen dietenean, jartzera joango direla. %19 oraindik ez daude ziur egingo dutenaz eta %5ek bakarrik diote ez direla txertoa jartzera joango.

Txertoa jarri nahi ez izateko arrazoi nagusiak dira gehiago itxarotea nahiago luketela (txertoa ez dutela jarriko esan dutenen %41ek aipatu dute) eta uste dutela txertoa ez dela segurua (%30).

Txertoa jarri ala ez zalantza dutenen artean, txertatzearen aldeko erabakia hartzera bultzatuko lituzketen faktoreak ondokoak dira: bere burua kutsatzeko arrisku handian ikustea (%42), inguruko beste pertsona batzuek txertoa jarri ondoren ondorio kaltegarriak ez izatea (%33), bere medikuak gomendatzea (%25) eta txertoa jartzea beste herrialde batzuetara bidaiatzeko ezinbestekoa izatea (%16).

COVID-AREN ONDORENGO GIZARTEA

2022tik aurrera espero da irtenbidea

Pandemiaren aurretik bizi ginen antzera noiz biziko garen galdetuta, iritzi zabalduena da 2022an izango dela (%42) eta %26k uste dute 2023an edo beranduago izango dela. Herritarren %13k urte honen bukaerarako espero dute eta bakarrik %6k aurtengo udan. %8k uste dute inoiz ez garela biziko pandemiaren aurretik bizi ginen antzera.

Herritar gehienek ez dute uste euskal gizartea aldatuko denik elkartasunari eta emakume eta gizonen arteko berdintasunari dagokienez, baina bai desberdintasun sozialei dagokienez; izan ere, %74k uste dute pandemiaren ondoren desberdintasun horiek handiagoak izango direla.

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 900 lagunek osatua da. Elkarrizketak telefonoz egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa $\pm 3,33$ koa da EAE osorako, %95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2021eko urtarrilaren 27tik 30era bitartean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

http://www.euskadi.eus/ikerketa_soziologikoak